

2018KO OTSAILAREN 27KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko otsailaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jabier Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2018ko urtarrilaren 30ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-


Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onspen proposamena irakurri dira.

Kreditu aldaketa honen partida garrantzitsuenak Kiroldedia handitzeko ejekuzio proiektuaren idazketa egiteko eta San Benito Ikastolako berokuntza sistema aldatzeko lanak aurrera eramateko hurrenez hurren jartzen diren 140.000 eta 102.850 euro dira.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du iaz bezalaxe aurten ere kreditu aldaketa bat planteatzen dela aurrekontua onartzerakoan sar zitezkeen partidak izanda. Gehitzen du, kontzeptuan ados daudela baina egiteko moduarekin ez datozela bat.



Hau honela, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aho batez, honako erabakiak hartzen ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zbk.dun kreditu aldaketarako espediente onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	242.850,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		242.850,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	242.850,00 €
GUZTIRA		242.850,00 €


Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

IV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Aran zinegotziak (EH Bildu) landa lurreko zinegotziari Enirio Aralar Mankomunitatearen azkeneko bilkuran berak emandako botuari buruz galdetzen dio eta honek ezezkoa eman zuela erantzuten dio.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hamaika direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



**LAZKAOKO
UDALA**